

## Intxaurrendoko

## Interneten barrena dohainik

Intxaurrendotarrek sarean doan ibiltzeko aukera dute auzoan bertan. Izan ere, Larrotxene kultur etxean ordenagailu gela ipini berri dute.

A.Z

Larrotxenen internet gela jarri dute, auzotarrek musutruk erabil dezaten. Gela honi bi eratako erabilera ematen zaio. Batetik, goizez, 10.00etatik 14.00etara bitartean, ikastaroak ematen dira. Bestetik, arratsaldean, nabigazio librea egin daiteke. Ikastaroak emateko eta edozein kezka argitzeko, tutore bat gelan izaten da egun osoan.

Ikastaroei dagokienez, hainbat maila daude, betiere interneten erabilerari begira. Lehen mailan internet zer den eta zertarako erabil daitekeen irakasten da. Bigarrenetan nabigatzen irakasten da, eta baita posta erabiltzen ere. Hirugarrenean sareari buruzko ezaugarriak sakontzen laguntzen


dute. Eta laugarrenean interneten zerbitzuak zeintzuk diren ikas daiteke. Horietxek dira, beraz, lau mailak.

## "Kzgunea"

Ordenagailu gela hau Eusko Jaurlaritzak EAEn martxan jarritako kanpainarekin lotuta dago. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak Interneterako Sarbidea eta Prestakuntza eskaintzen duten zentro sarea osatu nahi du Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban. Horretarako hainbat

herritan "kzgunek" izenekoak abian jarri dituzte herritarrek sarean nabigatzen modu errazean, dohainik eta etxetik hurbil ikas dezaten.

"Kzgunea" hauen berri izateko [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) helbide elektronikoa sartu besterik ez dago. Bertan herriz herriko informazioa topatuko duzue. Donostiari dagokionez, gaur egun lau auzotako kultur etxeetan daude horrelako gunek, Altzan, Amara Berrin, Egian eta Intxaurrendon, eta baita uda-



Internet  
ikastaroek  
harrera ona dute  
auzoan

letxe azpiko liburutegian ere. Web orri honetan, besteak beste, ikastaroen berri ematen zaigu: noiz egiten diren, zenbat egun irauten duten, taldeak osatuta ote dauden eta lekurik libre ote dagoen...

Intxaurrendon proiektu berriak harrera ona izan du. Auzotar asko inguratzen ari dira kultur etxera, gero eta gehiago "kzgunea" hauen publizitatea egiten hasi denetik. Goizean, batez ere, jende heldua eta adinekoa inguratzen da ordenagailuetara: ikastaroetan parte hartzen dute, internet mundua ezagutzeko edo eza-gupena sakontzeko. Zalantzarik gabe, ikastarook arrakasta dute auzoan, taldeak berehala osatzen dira eta. Arratsaldean, berriz, gazte jendeak jotzen du internet gelara. Hala ere, bada arratsaldetan nabigazio librea jarduten duen heldu eta adinekorik ere.

## IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: 943458408.



Arriberri, 7 ALZA (Donostia) Kasaren Kultur Etxearen Alfozko bilkura egiten da eta autobus bazatoz, hobe! Autobus lineak 13, 16, 21 eta 27.



Kolon Pasealekua, 27 (Gros) DONOSTIA